

\* **l i l u r a t u r a****Italia, arrosaren izena***Izen handiek baino gehiago idazle berriek eta emakumeek saltzen dute gehien italiar literaturan*

**E**gile ezagun ugari eman ditu mende honetan Italiako literaturak. Zenbait erabat klasiko bihurtu zaizkigu dagoeneko. Baina gaur egun, idazle berrien eta, batik bat, emakumeen sorkuntzek salmenta postuen lehenengo lekua kendua diete izen handienek argitaratzen dituzten liburuei. Egoera bera da prosa zein poesian.

Garikoitz Berasaluze / Donostia

JAKINA da XX. mende honen literatura aldatuko zuen abangoardiaren lehen arte higikundeak Italian sortu, hazi eta hedatu zela, Filippo Tommaso Marinettiren gidaritzapean eta futurismoaren izenpean hain zuzen ere. Bigarren Mundu Gerraren ostean sortuko den idazle belaualditik ere Cesare Pavese, Elio Vittorini eta Alberto Moravia italiarrak Europako literatura gorenean ariko dira. Mende honen bigarren erdian, Italiako literaturak antzinatik datorkion loraldia areagotuko du Italo Calvino, Eugene Montale, Leonardo Sciascia, Pier Paolo Pasolini eta Umberto Ecoen eskutik batez ere. Gaur, azken honek idazten dituen liburuak salmenta arrakasta handiak izaten dira oraindik Europa osoan.

Azken bi hamarkadetan amaraun ederra ehotu du Italian egin den literaturak eta sare horretan ibili dira batera zein bestera hainbat eta hainbat idazle. Aukeraketa egitea zaila bada ere, Primo Levi, Claudio Magris, Vittorio Sgarbi, Antonio

Tabucchi, Susanna Tamaro, Nanni Balestrini, Umberto Eco, Gianni Celati, Mario Soldati, Romano Battaglia, Mariateresa Di Lascia, Maurizio Maggiani, Stefano Benni eta Clara Sereniren izenak aipatzea ezinbestekoa da behintzat.

**Emakumeek saltzen dute**

**gehien** • Hauek guztiak argitaratzen dituzten liburuei eta beren salmentei begira geldituz gero, bada aipatzea merezi duen zerbait: emaitzak hausten ditu haitzak. Hots, idazle berriak eta batik bat emakumeak dira salmenta zerrenden lehen postua dutenak oro har. Umberto Eco-ren *Lehenengo egunaren uhartea* azken liburuaren argitaratzeak hautsi du hau zenbait astetan zehar, baina orain Mariateresa Di Lascia eta Susanna Tamaroren liburuek salduen lekua hartu dute berriro, eta azken aste hauetan ere emakumeak izan dira nagusi salmentetan. Hau harantzago doa poesian, non emakumeen hitza kate moztetik askatu den eta leku nabarmena bilatu Italiako literaturan. 70eko hamarkadan hasi



Susanna Tamaro eta Umberto Eco idazle italiarrak.

zen indartzen Italian emakumeek eginiko literatura, batik bat Biancamaria Frabottaren ondoren. Emakume honen literatura egoera politikorekin eta mugimendu feministarekin lotuta ageri izan zen hasiera ba-

tean eta estiloari kutsu intelektuala gehituz eman zien bizia bere lanei. Honen ondotik emakume talde berria etorriko da eta hauek izango dira egunotaraino italiar poesia aurrera ateratzeko orduan, talde bezala aipa-

menik merezi duen egile multzo bakarra osatuko dutenak.

Gaur egun, Erroman bizi den Sara Zanghi idazleak antologia antzekoa prestatu du egungo italiar poesian handienak diren emakumeen izenak bilduz eta hauen egoera, ekarria zein esanahia azalduz. Bertan biltzen dituen idazleen artean egile eta libururik garrantzitsuenak aipatzekotan, lanaren antolatzailerari berari jarraikiz, honakoak nabarmendu behar dira: Amelia Rosselliren (1930, Paris) *Appunti sparsi e persi* eta Sleepy Vivian Lamarqueren (1946, Trento) *Il signore d'oro* eta *La bambina di ghiaccio*; Patrizia Valdugaren (1953, Veneto) *Medicamenta* eta *La tentazione*; Biancamaria Frabottaren (1946, Erroma) *Il rumore bianco* eta *Appunti di volo e altre poesie*; Jolanda Insanaren (1937, Messina) *Il collettame* eta *Medicine carnale*; Anna Cascellaren (1941, Erroma) *La voglie* eta *Tesoro da nulla* eta Antonella Aneddaren (1958, Erroma) *Residenze invernali*. X

**Hiru izarreko literatura**

ITALIAN idazten dena hotel batekin alderatuz gero, izar gehiago mereziko babilu ere, hiru izarreko literatura dela esan dezakegu. Atzera begiratzuz Luigi Pirandello, F. T. Marinetti, Cesare Pavese eta Alberto Moravia oroitzen ditugu berehala, baina gaur eguneko artean ere bada bere kabuz dagoeneko argia egiten duenik. Umberto Eco, Stefano Benni eta Antonio Tabucchi kasua dugu hau. Azken asteotan Susanna Tamaro eta Mariateresa Di Lasciaren liburuek zerbait

apaldu badituzte ere, italiar literaturan maisu izena hartzeko bidean diren beste hirurek libururen bat kaleratzen duten bakoitzean denbora luzez izaten dute salmentetako lehen postua.

Umberto Eco ez du aurkezpen luzerik behar. *Gehiegi dakien gizona* esaten diote Italian 63 urteko idazle handi honi. *Arrosaren izena* eta *Foucault-en pendulua* liburuekin egundoko ospea lortu zuen Eco, eta ia argitaratu zuen *Lehenengo egunaren uhartea* elebe-

rria ere arrakastaren bideak urratzen ari da. Alberto Moraviak *Arrosaren izena* irakurri zuenean, egilea Julio Verne eta semiologiaren lilurapean zegoen norbait zela adierazi zuen. Baita bete-betean asmatu ere, Eco aitortzen duenez. Idazle izateaz gain, hizkuntzalari ere bada, eta Roland Barthes lagun mina izan du.

Antonio Tabucchiaren *Sostiene Pereira* eleberriak ia salmentak astindu zituen. Italian ezezik baita European ere. Baina ez da haatik hau Tabucchiaren

lehen emaitza. 1943an jaiotako idazlea literatura portugaldarren irakaslea izan da Genoako Unibertsitatean, eta baita Lisboaako Italiar Institutuko zuzendaria ere. Idazle, itzultzaile eta Pessoren miresle sutsu honek eleberri handiak idatzi ditu, horien artean aipagarrienak *Porto Pim-eko Dama*, *Aingeru beltza*, *Requiem* eta *Sostiene Pereira* direlarik. Azken horrek Europako kritikaren gorespen ugari jaso du.

Azkenik, Stefano Benni hitz egiterakoan, azken bi

asteotan Italian gehien saltzen ari den idazlea dela nabarmendu behar da. Benni, 1947an jaioa, idazle ezaguna da Italian eta bere liburu bakoitza arrakastak lagundurik izaten da kalean. Bere eleberriak hizkuntza ugari itzuliak dira. Telebistaren aurkako literaturazale hau lehendik nahikoa ezaguna bazen ere, *Elianto* bere azken eleberriak egunkarietako kultura saileko lehen orrialdeetara itzularazi dute. *Itsas hondoko taberna* eta *Lurra* ditu lanik ezagunenak.

**BILINTX**

**MEGADENDA DONOSTIA**  
Fermin Calbeton, 21 - Tel.: 42 09 30 - 42 00 80 Faxa: 42 23 63  
**IRUNEN:** Republica Argentina, 4 - Tel.: 62 68 17  
**TOLOSAN:** Arostegieta - Tel: 67 35 33  
**BERGARAN:** Ibagarai, 14 - Tel.: 76 40 50

**XALBADOR**  
**LIBURUDENDA**

Comedias, 14  
Tel.: 224167 / 229981 - Faxa: 211061  
31001 IRUNEA

**URRETXIN DORRA**  
**LIBURUDENDA**

Ipparragirre, 26  
Tel.: 4240228 / 4244396 - Faxa: 4244235  
48011 BILBO